

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lorentza Altuna Mondragon

*Arrasate
Gipuzkoa (1925)*

Aurkibidea



Biografia



San Andres auzoko Estrada baserrian (gaur galduta) jaio zen 1924an. Aita Estradakoa bertakoa zuen eta ama auzo bereko Satorretzekoa (hau ere gaur egun galduta). Hamar anai-arreba ziren. Estradako etxea urak mugitu eta brintzatu ondoren, familiak alde egin zuen bertatik eta hutsik zegoen Elorriaga baserrira pasatu ziren. Bedoñako abade etxean hasi zen eskolan, gero Aretxabaletako Aozaratza auzoko eskolan ibili zen eta handik Arrasateko Merzedarien eskolara joan zen. 13 urterekin bukatu zituen eskolak. 18 urterekin Soraluzeko "Meltxiorren" tabernara joan zen lanera. Han hiru urte lanean egin eta gero, etxera bueltatu zen baserriko lanetara. 28 urterekin Otamendi baserrira ezkondu zen, Antonio Aranarekin, eta bost seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARR-038

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Ana
- **Data:** 1997-01-01
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

ARR-068

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-16
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Satorretxe baserria nola galdu zen

- **Erref:** ARR-068/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Amaren jaiotetxea, Satorretxe baserría, non zegoen eta noiz galdu zen azaltzen du. Etxea mugitu eta printzatu egin zenean, bota egin zuten. Bera gaztea zela, ekaitz handi baten ondorenean, etxeko atarian metro beteko kazkabar geruza ikusi zuen.</p>

Transkripzioa

-Satorretxekua?
-Satorretxekue, bai. Grazie eitten dotsu?
-Bai, hori, Satorretxia.
-Satorretxe bai, Satorretxekue. Satorretxea.
-Hori nun dao, Satorretxe?
-San Andres auzuen. Takolo bakitzu nun dauen, bide kurtzien? Ba handik hurrengo euen. Hor Fagor oin botata dau.
-A, euen?
-Fagor sortu zan lekuen-edo. Bai euen bai.
-A, oin izkutaute dau.
-Bai izkutaute dau bai.
-Fagor Elektronika dauen lekuen?
-Elektronika ez. Bestaldera, Atxabalta aldera. Bai.
-Hor, Lugor ez zan?
-Bueno, Lugor bai, Lugor, Lugor. Hor Lugor inguruen, bai.
-Satorretxeko Fagorren ipiñiko dot. Noiz galdu zan etxe hori?
-Ba, hori galdu zan, nik, hamazortzi urtekin fan nitzen Plazentzira zebiduten taberna batera. Ba harrazkero izen zan. Baiñe, hor liburu baten agerketan da erre ein zala ta erre ez zan /etzan/ ein. Zeatik euen kontraterrenuen euen baserri ederra zan. Kontraterrenuen dauken oseake terrenuek euen oso aldrebek, danak aldapan ta urriñetik. Eta etorten zan goittik behera ur asko etorten zan. Eta ein zan mobiru.
-Etxie mobiru?
-Bai eta brintzau ein zan. Eta ein biher izen euen, bota. Ein biher izen euen. Ta liburun baten etorri da erre ein zala baiña erre ez, ez zan /etzan/ ein. Bai, mobiru ein zan.
-Hori Oñatiko Ursulan be gertau zan. Hiru etxe mobiu ein zien holako ur haundi batzukin.
-Bai, mobidu ein zan.
-Eta harek be hustu ein biher izen zittuen.
-Bai mobidu ein zan. Ni akordetan naz, ni gaztie nintzela zela ein eben holaxe junixo baten keixak eta heldute zela, harrixek. Baiña ein eben harri asko. Ta goittik behera sartu zan harrixekin, eskapeien, holako metro ta piku geratu zan harrixek. Eta auzoko jentie ibili zan handik harrixek ataraten. Harrixek bai.
-Hori ze urtetan pasauteko kontuek?
-Ai, nik horixe urtiok, ez jakixat /etxakixat/ ume. Hori ni gaztie nintzela.

2. Eskolak euskaraz

- **Erref:** ARR-068/004
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:08:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bedoña auzoan bi eskola zeuden: umeek sakristau-etxean ikasten zuten, eta gero abade-etxera pasatzen ziren. Hemen ikasi zuen Lorentzak. Gero Aretxabaletako Aozaratza auzoko eskolara joan zen, eta handik Arrasateko mesedetako mojetara. Eskola gehienak euskaraz jaso zituen, mojetan izan ezik.</p>

Transkripzioa

-Eta zerbiduten jua baiño lehenao eskolan be ibiliko ziñen?
 -Bai. Hombre. San Andres, hemendik Bedoñara guk geunken. Baserrixe San Andreskoa, baiña Bedoñin geunken zeroi. Lehenengo ibili gintzen abadiatz.
 -Izena?
 -Don Fermin. De Arroiabae.
 -Arroiabae. Fernández de Arroiabae.
 -Don Fermin Fernández de Arroiabae, bai.
 -Ta hori, eskola hori, abadetxien euen?
 -Bai. Abadetxien euen. Eta beste bat euen sakristauenien. Lehenengo txikixek sakristauak ibiltten zittuen ta gero pasetan zittuen abadiana.
 -Ta bi eskola euzen?
 -Bai, bai. Eskola, eskola moruen, bai, bai, bai. Ta hantxe ibili gintzen gu. Ta gero ez dakit /eztakit/ nik.
 -Zu zeu ibili ziñen, sakristauan?
 -Ez. Ez naz akordetan sakristauen ibili nintzenik. Abadiatz bai.
 -Eta zenbat urtekin edo hasi ziñen?
 -Ba gaztie, gazteik. Zenbat urtekin? Gazte.
 -Bost- sei edo?
 -Bai holakon bat, bost-xei bat urte edo hola.
 -Eta noiz arte egon ziñan hor?
 -Ba gero, puxkat kaskondu gitzenien akordetan naz hemen ez dakit / eztakit/ zer pasau zan, faten gintzela Azatzara be bai.
 -Azatzako eskola?
 -Azatzan egon zan maixu bat ta ez naz akordetan zela euen ixena be. Holako zelege samar bat zan bera ta ez dakit /eztakit/ zer ikisi eben han, dibujuk eitten-edo, ez dakit /eztakit/ zetan. Ez geben denpora asko ein e! Bazkaixaz faten giñen hara. Ta gero Merzedarixatan be ibili nintzen beste apur bat.
 -Hori, Atxabaltzan edo Eskoitzan?
 -Mondrauen. Merzedarixetan Mondrauen. Maixuaz Azatzan e! Atxabaltan. Ta gero Mondrauen Merzedarixetan. Baiña ni estudiante txarra izen naz e! Estudiante txarra. Hemendik sartu ta bestetik urten uste dot.
 -Ze eskola klase jasoten zeuen? Pentsaitten dot dotriñie asko ikasiko zauela?
 -Hombre, dotriñie bai. Lehenengo txikixe, gero haundixe, oraziñuek eta horreik ondo ikesi biher izeten zien-ta. Gañetikoik ez, baiña hori bai.
 -Euskera edo erderaz jasoten zenduen?
 -Euskeraz. Euskeraz.
 -Eskola dana jasoten zauien euskeraz?
 -Bai. Akordetan naz don Fermin difuntuek zela erakusten euskun: aberea “ganado”; hau “éste”; agertu “aparecer”; ta holako zerak erderara be

puxkat, ez dakitzu? Baiñe bestela euskeraz dotriñie-ta euskeraz. Ta gero Merzedarixetan erderaz.
-Dana erderaz.
-Dana erderaz.
-Ta bazekitzuen [...]?
-Gero erderaz.
-Hara fan ziñien orduko bazekitzuen ya erderaik?
-Bueno, zoker hartuko geben-edo, zeozer. Zelakuk izengo zien? Ez dakit. Baiña zeozer bai.

3. Umetako jolas ezberdinak

- **Erref:** ARR-068/005
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:08:26. **Bukatu:** 00:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Gogoan ditu eskolako mahai handiak, euren tintontziekin. Hamabi urterekin bukatu zituen eskolak. Gero baserrian geratu zen. "Harri-launke" umetako jolasa azaltzen du. Beste jolas asko aipatzen ditu.

4. Jolasak eta dantzak

- **Erref:** ARR-068/006
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:12:03. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>"Kinkinke", "labanderan" eta holako jolasak azaltzen ditu. Jaietan Aretxabaletako plazara joaten ziren dantzara. Soinujolea, jatzana edota gramola musika egoten ziren dantzatzeko.</p>

Transkripzioa

-Guk? Gauza asko eukitten ginttun guk. Gero, "kinkinke" be bai. Kinkiñek eitten zien egurrekin, kinkiñek eta sartu lurrien ta bat jo ta botaten ebenak irabazten eben ta holako gauzak. Askok izeten zien.
-Horren izena zelan esan dozu?
-"Kinkinke".
-"Kinkike"?
-Bai.
-"Kinkike". Oseke egurra...
-Egur trozotxuek, zorrotute eta sartzen zitxuzun lurrien.
-Kutxilluen moduen....
-Bai, bueno, jolasak ugeri izeten zien. Gero "labanderak" be bai. "Labandera" be bai. Aldatzak euzen lekuen ta. Bota potiaz ure ta hankiaz. Aurreku txipristindduaz. Goixen bota ure ta labandu itten zan ta hanka

baten gaiñien jarri ta behera.
 -Ta hori zelan deitzen zan?
 -Labanderan.
 -Labanderan.
 -Oin bestela egoten die ba, txirritak eta ez dakitzu? Txirritak eta eukitten dittue umiek. Txirristak. Txirristak eta.
 -Toboganak bai.
 -Ba guk eukitten ginttuen labanderak. Aldatzian jarri ta ure bota ta urik ez baeuen txixe ein eta beherutze.
 -Hanka baten gaiñien fango ziñien.
 -Hanka baten gañien, hanka baten gaiñien.
 - Ez dosku hondio iñok kontau, niri behintzet holako...
 -Guk eukitten ginttuen, bai. Eukitten ginttuen, eukitten ginttuen. Ta gero ba jaixetan ta gero [...] jaixetan. Atxabaltara joaten gitzen gaztiak, Atxabaltara. Atxabaltan egoten zan gramolie, plazan. Gramolan jo ta alpargata danak muturrek apurtute hantxe. Hemendik oiñez faten giñen Atxabaltara. Ta gero egoten zien kanbixue, soiñue be bai, Juliana Zabal, soiñujolie. Bai, soiñujolie. Joten eben soiñue. Eta batzutan jazbana be bai, Felipe, zelan zan? Felipe Mondrauekue jazbanistie. Ai, oin ez naz akordauko abizena zelan zan. Felipe, hak be bai.
 -Jazbana?
 -Jazbana joten eben.
 -Eta gero Felix be bai, Felix Aranzabal be bai, soiñue joten. Ta hareik kanbixau eitten euen ta gero gramolie ifintten euen. Danak aprobetxau biher ba.
 -Ta gramolan, gramolan, ze musika joten euen, dantza eittekue?
 -Bai, bai, trikitixak be bai, bai eta gramolie be bai. Ta bestela dantzan eittekuek be bai.
 -Eta ez zebeu eukitten problemarik neskak abadiekin eta dantza eittiegaittik-eta?
 -Ez, gu, gure sasoireko apur bat baretute euezen.
 -A bai?
 -Bai, gure sasoireko, baiña kasuik ez zotsaun eingo bestela be.

5. Aita lan ezberdinetan iaioa zen

- **Erref:** ARR-068/007
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:18:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Hijas de María eta luistarren kongregazioko kontu batzuk azaltzen ditu. Eskolatzea bukatu eta etxean geratu zen. Behi ederrak eta etxean hazitako idiak zituzten. Aita hargina eta igeltseroa izateaz gain, txerri-hiltzaile lanetan ere jarduten zen, eta baita karegintzan ere.</p>

Transkripzioa

-Kontau zoztan Antzuolan batek, zure edadekua ha be, eta harek esan

ostan.

-Hijas de Marietakue, bai.

-Eurek eukitten ebeila zintta urdiña.

-Urdiña.

-Eta, [...] ein ezkerro, dantza ein ezkerro mutillakin zintxa berdía jartzen otsiela.

-“Ahí esta”, ez, ni ez naz akordetan.

-Zuek ebaltzen zeuen zintta hori?

-Bai, baiña guk ibiltten gaben zintta hori mezetara faten gintzenien ta zeozer euenien, bestela ez. Ta han elixan egoten zien, geuk ez geben eukitten e! Elixan egoten zien horreik.

-Ta zeuek ipiñi barik?

-Bai, ez. Zan lazo azul bat, medalla bat, Ama Birjiñiaz. Ta horrek han elixan egoten zien. Abadik eukitxen zittuen.

-Baia zeuek [...]

-Ez ez, zozer euenien, bestela ez. Hijas de Marietakuek edo ez dakit zer. Ta gero San Luisenak, mutillek be bai eukitten zittuen. Mutillek be bai.

-Harek lazuekin ez zien ibiliko.

-Hareik be lazuekin eukitten zittuen.

-A bai?

-Bai, ez dakit San Luis edo zer izeten zan eukitten euen hoi, baiña bai.

-Harek be lazuoi ebaltzen ebei?

-Bai.

- Ni egon naz Luistarrekin hau danau beitten ta...

- Ba hemen behintzet ni akordetan naz lazuekin eoten ziela.

-Formal formal.

-Bai, urten arte. Mezetatik urten arte.

- Zeuek antzera, ezta?

- Bai.

-Eta hamahiru urtekin eskolia [...] ta ia etxien geratu ziñan?

-Bai, gero etxian.

-Ganauek eta bazaukien.

-Bai, ganauek-eta.

-Zenbat ganau?

-Zenbat eongo zien ba, zazpi -zortzi bat-edo.

-Idirik-edo?

-Idixek, etxien hazi zittuen aittek idixek. Etxekuek euki zittuen idixek, baiña bestela behixek edarrak: uztarriko behixek. Uztarrixen behixek. Txata ta Noble. Behixek uztarrikuk, edarrak.

-Nire baserrixen be Txata bat egon zan.

-Egon zan? Txata ta Noble behixek. Eta gero zekorrak euki zittuen eta zekorrak kapate idixek etxien ifiñi zittuen. Ta idixek etxien hazi zittuen.

-Zure aitte karreterogintzan ibili zan edo etxeko lanetan bakarrik.

-Bueno, nire aitte zan hargiñe, zan igeltserue, zan txarri-hiltzaillie, danetik eitten zittuen.

-Figuria orduan.

-Bai, danetik ein zittuen. Malaletxetxue be bazan baiñe danetik eitten zittuen, bai.

-Baiña berak etxien ingo eban ta.

-Etxien ta kanpuen be bai. Hargintzan be ibiltten zan ta etxien be bai. Gero eitten zittuen karoixek be eitten zittuen, karie be eukitten eben etxien. Ta etxien eukitten eben karie eta zera, hori, zeroi be etxien eitten eben.

-Letxaria?

-Letxerie be etxien eitten eben. Ta leku askotan ibiltten zan, zerien,

zuriketan ta hola. Etxie zuriketan ta. Artistie zan hortan. Etxie oso ondo ifiñitte euken.

6. Baserri ezerosoa, baina emankorra

- **Erref:** ARR-068/008
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:18:21. **Bukatu:** 00:21:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Aitak etxea txukun jarrita zuen, baina etxearen kokapenagatik ur larregi sartzen zen barrura. Lur-sailak ezeroso eta urruti samar zeuden, baina aitak fruta arbola ederrak zituen, baita erleak ere.</p>

Transkripzioa

-Baiñe, etxik defektutxo bat euken. Ur asko sartzen zan goixetatik eta. Ni akordetan naz amak zela esaten eben : “[...]balego”. Ta alde bixetatik kriston kalluek euken. Ure fan zain, baiña hala ta guzti be urek goittik behera sartzen zien asko. Kontraterrenue euken ba, bastante. Ta etxie ederra zan, baiñe.

-Ardirik eukitten zebein?

-Ez. Ahuntzek bai.

-Ahuntzak e?

-Ahuntzek bat edo bi bai, baiña ardirik ez. Oilluek eta gaiñera oilluek eta txabolie ta “en el quinto carajo”. Ta aldatzien gora fanda zera, lehenengo oilloteixe, gero erlateixe, gero txabolie.

-Erlateixe esan dozu?

-Bai, erliek be bai eukitten zittuen.

-Kontxo! Zu zeu ibili za sekule erletan?

-Ni ez, baiña akordetan naz zela eukitten zittuen ta sagarrien geratu zan baten, doiela erlakumie sagarrien ta zela hartzen eben esnie.

-Esnia?

-Bai, ta zela erretirau eben. Akordetan naz. Ta hartzen zittuen. Ta ataraten zittuenien esnie eztixe ataraten ebenien, holako panalak.

-Abauak.

-Bai, abauak, darixola han ibiltten zan ta kriston pikadakin erlienakin ibiltten zan. Danetik euken.

-Baiña zu gustora, eztixe gustaitten bajatzun...

-Bai, euken hortan espeziala zan. Ta euken frutalak, kantidadie euken. Ona gaiñera e! Madarixek, neguko madarixek, konpotarakuk be bai. Bi arbola edarrak euken. Gero udakuek be bai. Kategorixakuek euken. Askok, oso. Eta zan oso frutazalie ta. Ta berak esaten eban, jaten eutsien ta: “Jan deixiela, zenbat eta gehixau jan gehixau eitten jako ta. Gure daben guztie jan deixela” esaten eban harek.

-Jan zer? Txorixek?

-Txorixek eta gaiñetikuek. Etozenak eta jan deixiela.

-Danontzako daola ta.

-Danontzako. Zenbat eta gehixau jan gehixau eitten jakola esaten eban ta harek.

-Baiña horreik orduen etxetik urrin xamar euezan, ezta?

-Bai, urrin urrin. Danak aldapan, aldapan aldapie gora urrenen dauenak be bai, aldapan gora. Danak aldapie gora, gorutze. Eta ibiltteko nahiko. Bat

hor Begoña aldien ez dakit nun zolo bat, beste bat ixte Iremendi inguruan , gero Kurtzetxikin atzera, Kurtzetxikin be bedarrak eta soluek be bai eta urrin urrin, asko ibili biher zan.

7. Lihozko izarak eta lixiba

- **Erref:** ARR-068/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Lihoa (linua) soroan ez du ezagutu Lorentzak, baina lihozko izarak ospelei hazka egiteko onak zirela dio. Garbitzeko eta lehortzeko ere ez omen ziren errazak izarok. Pujeta (lixiba) nola egiten zuten gogoratzen du, hamabost lagun etxean bizi zirenean.</p>

Transkripzioa

-Bai.

-Eta, garixa ta artua ta eukitten zebein?

-Bai.

-Zuk liñua ezautu dozu?

-E?

-Liñua.

-Ez. Baiñe liñue uretan non eukitten euen hotxian, badakit.

-Liñu potzuek?

-Liñu pozuek, bai. Baiñe neuk ez neben ezautu. Ta hemen be beuen, hemen arku onduen euen bat, liño harrix zala esaten euen. Liñue joten euen harrix.

-[...]

-Bai, liño harrix esaten euen zala. Baiñe neuk ez neben ezautu liñoik.

-Gero etxien entzunda edo? Zuk liñozko izerarik eta ez dozu sekula eduki ohien.

-Bai, liñozkuek.

-Bai, zera baiño gogorrauek, ezta?

-Bai, hombre. Ospelei hazka eitteko izeten zien hareik onak. Ospelak ugeri eukitten gittuen ta harai hazka eitteko onak izeten zien hareik.

-Behin ein dot lo liñozko izerakin eta...

-In dozu?

-Eta sekula gehixa ez.

-Bai, liñozko izerak, gogorrak eta bai. Bai, sikeketako ta garbiketako ez zien ederrak izeten e!

-Ez, pentsetan dot.

-Ordun pujetie ein biher izeten zan ta ni akordetan naz han Estradakon zela egoten zan tinaja bat ta han beraketan ifintten zittuen ta trapu bat ifiñi gaiñien ta suteko hautsaz. Ure bota berue ta suteko hautsaz. Ha bigunketako zoker biherko /biko/ zan.

-Bai,[...] puxetia betik sutako hautsakin, ezta?

-Bai.

-Zuek erramork botaten zotsein puxetiai.

-Ba, gaiñera bai, zeozer bai. Ni gero ez naz akordetan, baiñe Estradako hori nire, pentsau eizu, gu hamar anai-arreba izen gitzen, gurasuekin hamabi,

aittajauna amandriekin hamalau ta beste izeko bat hamabost.

-Tropatxue.

-Ni akordetan naz, bai. Ta gero ba, ni txikixena, ni neuk gure nittuenak ein ta han ibiliko nitzen, baiña bestiek ba..."cada uno sálvese quien pueda" ein biherko /biko/ euen. Eta akordetan naz amandriek eta bizi ziela Estradako sukaldien zela euen zera, tinajie batendako zulue moduen, baztar baten. Ta han eukitten euen zera, tinaji hori.

-Puxetia?

-Pujetiendakue.

-[...]

-Bai, zulo bat.

8. Erramu bedeinkatua

- **Erref:** ARR-068/010
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:23:33. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Erramu hostoak jartzen ziren lixibaren gainean. Oraindik ere, bedeinkatutako erramu adarrak jartzen ditu Lorentzak baserriko ate eta bazterretan. Ortuan ere jartzen du erramuzko gurutzetxo bat.</p>

Transkripzioa

-Gaiñien eukitten zittuen elauntz-orrixe.

-Zertzuek?

-Elauntze.

-A, elauntze zuek erramuai esaten dotsezue?

-Erramue, bai, erramue. Elauntze, elauntz-orrixe. Elauntze. Erramue da bestie. Elauntz-orrixe ifintten zittuen.

-Elauntze ez da laurel?

-Bai.

-Ba guk erramue esaten xau.

-Erramue, ba guk elauntze. Elauntze. Erramue da hori beste, erlatei onduetan eta egoten danoi. "Miel de Romero".

-Ez, romero beste gauza bat da. Guk Oñatin esaten xau, laurelari esaten xau.

-Erramue?

-Bai. Baserri askotan eoten dana, etxe inguruan.

-Bai. Nik oin be hor dauket, hor atien txintxiliz.

-Bai, bedeinkaketa eruteko.

-Elauntze, bedeinketute. Neu ez naz fan, baiñe aldekiek ekarten dust.

Angelek ekarten dust urtero urtero bedeinketute. Ifintten dittut atien hor dauket ifiñitte txintxiliz, kanpoko atien be bai apur bat. Ta ifintten dittut bazterretan. Ortuen be bai, kurtzatxo bat erramuekin.

-Hor zer?

-Erramue, bai, laurela zerakin, erramuekin.

9. Soraluzera neskame

- **Erref:** ARR-068/011
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:27:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Hamazortzi urterekin Soraluzeko Meltxiorrena taberna jatetxera joan zen neskame. Hilean hamabost ogerleko ordaintzen zizkioten. Ostegunetan kanoi-lantegiko kafetegira joaten ziren kafea hartzera.

Transkripzioa

-Bueno... eta esan dozu orduen e, eskolie akabau, ta gero etxien ta gero fan ziñala serbiruten.
-Gero, hamazortzi urtekin, Plazentzira fan nitzen, taberna batera.
-Zela... izena taberniek, zela auken?
-Meltxorrena.
-Meltxorrena.
-Meltxiorrena esaten utsien, Meltxior. Meltxorrenera.
-Ondiok badau taberna hori?
-Ba ez dutsut esango, Santana kalie zan ta ez dutsut esango, ez dutsut esango. Eurek hillik izengo die, baiñe alabie zan, ta ez dot uste eukiko dauenik tabernie.
-Ze, ze lan klase itten zebe zuk? Etxeko lanak, edo tabernako lanak, edo dana?
-E... "De todo". Tabernan, mostradorien, e... janak...
-A, jaten emuten ebein?
-Jaten emuten euen, obreruek-eta egoten zien, ta gero bazkaixek-eta be egoten zien, afaixek-eta be bai. "De todo". "De todo" itten nabien nik. Menos sukaldien koziñera... Koziñerie egoten zan. Baiñe bestela "de todo".
-Goguen dauketzu zenbat, pagaitten baotsuein, zenbat pagaitten otsuein?
-E? Eneeeee, pentsaizu. "Setenta pesetas".
-Egunien, astien, edo hillien edo...?
-Hillien. "Setenta? Setenta y cinco" Hirurogeta bost, zenbat da? "Setenta y cinco"? Hirurogeta hamabost pezeta. Ta nire aurrekuek esaten...
-Hamabost duro.
-Hamabost duro. Eta bestiei, nire aurrekuek esaten eben, berai hamar euro... hamar...
-Hamar duro.
-Hamar duro.
-Oseake hamabost duro eta...
-Oseake pentsaizu.
-Eta [...]
-Bai, bai, bai. Ba, pentsaizu, zenbat aurreratuko geben guk. Noixbaitten urteten bazebe "pues adiós". E?
-[...]
-Guk lana ugeri in dou /inddou/, baiñe dirue aurreraketan ez dou ikesi. Horixe ez.
-Dirue aurreraketako lehenengo euki in biher da /inbida/.
-Euki in biher da /inbida/. Egixe hori da, hori da, hori da. Gu betik izen gara [hainbakuek] eta holan segiruten dou ondiokan be.
-Eta orduan Plaentxin bizi ziñala, beti be egunen bat libre eukiko zeuein, ezta?

-Ba ez dakit... Ni akordetan naz eguenetan zelan faten gitzen e... han euen kaiñoi fabrika bat. Ta han euen komedorie edo ez dakit zer ta hara faten giñen kafia hartu-ta itten, eguenetan.

-Illunkaran?

-Bai. Baiña bestela, bestela ez geben eukitten jairik.

-Ez? Hara, Maltzagako erromerixara-eta ez ziñen faten?

-Ez, iñora be ez. Hantxe. Noxbaitten ariñeka bat plazara eitten bageben zeozer euenien, kitto.

-Ez euen gramolarik Plaentxin?

-Ez, ez, ez. Ez euen gramolarik. Plaentxin ez euen gramolarik.

-Ez zan egoten domeketan dantzarik plazan?

-E, bai. Egongo zan, egongo zan.

-Ta zuek lanian?

-Bai, guk ez geben eukitten. Ez geben eukitten.

-Kontxo.

-Gu hantxe, kieto parau. Kieto ez, kieto ez...

-[...]

-Kieto ez, baiña...

-Ta zenbat, zenbat denbora egon ziñen, zenbat urte?

-Ba, hiru bat urte. Hiru bat, igual gehitxuau, hiru t'erdire igual ez zien aillegauko, baiña holaxe egon nitzen.

10. Senargaia arrantzalea izan zuen

- **Erref:** ARR-068/013
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

28 urterekin ezkondu zen Lorentza. Senarra umetatik ezagutzen zuen. Groenlandian bakailaoa harrapatzen ibilitakoa zen. Koinatua ere arrantzale ibilitakoa zen. Lorentzari barkuek beldurra ematen diote. Nobiotan bost hilabeteko aldiak egiten zituen senargaiak etxera etorri gabe.

11. Etxean urik ez

- **Erref:** ARR-068/014
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:40:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Lorentzaren jaiotetxean, etxe ondoko teilape batean zuten ura, eta bonbaz jasotzen zuten posadera batean. Arropak garbitzeko harraska ere bertan zegoen. Argindarra beti ezagutu du etxean. Txomin "alanbrerua" etortzen zen Aretxabaletatik argia kobratzera. Ezkondu zen etxean ura patina batetik ateratzen zuten, baldez. Gero ur-andela jarri zuten.

12. Malbe famatuaren kontuak

- **Erref:** ARR-068/016
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:41:22. **Bukatu:** 00:43:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Malbe izeneko pertsona ezagunaren kontu batzuk azaltzen ditu.

13. Malbe famatuaren istorioak

- **Erref:** ARR-068/017
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:43:52. **Bukatu:** 00:47:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Malbe izeneko pertsona famatuaren istorio batzuk.

14. Bedoña, Aretxabaletakoa edo Arrasatekoa?

- **Erref:** ARR-068/018
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:47:53. **Bukatu:** 00:50:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Aretxabaletako auzoa zen Bedoña Arrasatera pasatu zen. Bedoñatarrek Arrasatera joateko joera zuten, nahiz eta Lorentza gaztetan dantzara Aretxabaletara joaten zen. Herri aldaketaren garaiko iskanbilak gogoan ditu Lorentzak, baina berak ez zien kasu handirik egin.

15. San Andres eta Bedoña auzoetako kontuak

- **Erref:** ARR-068/019
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:50:31. **Bukatu:** 00:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Lorentza Arrasateko San Andres auzokoa izanda, lehenengo jaunartzea Aretxabaletako Bedoña auzoan egin zuen; Bedoñatarrek, berriz, Arrasaten egiten zuten garai hartan. Gaur egun Lorentza bizi den Otamendi baserrikoak alde bietakoekin ondo konpontzen dira.

16. San Josepe ermita

- **Erref:** ARR-068/020
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:55:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Andres auzokoek ermandadeko bilerak San Josepe ermitan (gaur galduta) egiten zituzten. Jaietan ere han biltzen ziren auzotarrak. "Patrocinio de San José" egunean ospatzen zituzten jaiak, maiatzaren lehenean.</p>

17. Emakumeak auzolanean

- **Erref:** ARR-068/022
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:56:20. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Harri otzara eta aitzurrarekin auzolanean bideak konpontzera joaten zen Lorentza, San Andres auzoan bizi zenean. Auzoko beste emakume batzuk ere joaten ziren berarekin. Muxibar eta Atxena baserriak erre zirenean ere ibili zen auzolanean.

18. Umetako gaiztakeriak

- **Erref:** ARR-068/024
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:58:52. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Umetan egindako gaiztakeriak kontatzen ditu. Etxeko gauzak etxean gastatzen zituzten. Plazara saltzera ez ziren joaten.</p>

Transkripzioa

-Akordetan naz Estradakotik baten e, hemen, beste etxien, hau bizitza bikue da. Ta beste etxien, ba, nire... gizonan lehengusiñie, Miren, oin Malagan bizi da, Fuengirolan bizi da, eta harek bilddotsak hor urrin, hemendik be urrin ezen, hor Illerragorri esaten jakona, Menditzutik aurrera fanda Illerragorri. Ta han bilddotsak eta. Ta haren amak bieldu gindduen bilddotsetan, ta niri esanda nire amak ordu hortan etxera fateko. Ta ni bilddotsetan. Klaro, bilddotsetan fan ta emungo uskun /emunguskun/ zeozer e, amandriorrek eta bilddotsetan. Ta etxera fan nitzenien kriston palizie ta atarteko tronkuen, "castigada". Holakuek ein dittut nik neuk be,

e. Ta oin esaten dittuu, oinguei zerbaizuk, baiñe geuk be geuriek einddakuek gara.

-[...]

-Geure diabrukerixek einddakuek, bai. Nire anaieri, nire aurreko anaie, ba hamahiru hillebeten aldie daukou nire anaiek eta nik. Harek eingo dittu larogeta lau urte oktubrien, ta nik nobienbrien ingo dittut larogeta hiru. Ez, larogeta lau nik, ta harek larogeta bost. Eta pfff... oillotegixan goixen ta faten gitzen ta, oillotegire ta, harei arrautzak gustetan jakon. "Kas-kas" jo ta zurrut. Eta niri higuñe emuten ustien ta, "hik ez esan ezer e, hik ez esan ezer amai, e". Hartu han ta arteixe aldamenien ta arteire fan ta "kas-kas" jo ta "glin" zerak eta. Holakuek eta. Esan, barrez, ezer be ez. Ezer be ez esan.

-Baiña ama konturatuko zan.

-E?

-Ama konturatuko zan.

-Ba, ez zan konturatuko, zegaittik oillo mordue auen ta arrautzak be, ba... hainbeste ez zan konturatuko, baiñe... Behintzet guk gaiztokerixatxuek.

-Zuk zeuk plazara saltzen-ta fan izan zara?

-Ez, ez, ez.

-Ez zarai izan...

-Gu ez gara izen holako artistak.

-Eta zure etxetik iñor ez zan faten plazara edo saltzera?

-Ezta, ezta, ezta... iñor be ez.

-Etixerako orduen.

-Etixerako. Etixerako nahiko. Ez zan faltetan ezer be. Baiñe plazara-ta ez. Etixerako frutie bazan, e... intxaurrek, urrek, gaztaiñak. Gaztaiñak be asko egoten zien, eta frutie be bai. Negue be akordetan naz. Gari-arkak egoten zien orduen. Eta gari-arkatan sartute egoten zien madarixek konpotarakuek be. Eta danetik egoten zan. Ta ogixe be ez zan faltetan. Gerra denporan bai. Akordetan naz, zela egoten gitzen e, Zabalen egon gitzen gu, Zabale goikuen, amandrie Juana bizi zan artien, eta oingo pizzak ekarten dittuenien akordetan naz asko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com